

Hizkuntzen eta klimaren larrialdia, eskutik doazen bi krisialdi

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute · Elhuyar Zientzia

Munduko hizkuntza askok pairatzen duen arrisku-egoera eta biodibertsitatearen galera globala konparatu ditu [Nature Ecology & Evolution aldizkariko ikerketa batek](#). Biodibertsitatearen larrialdia oso kritikoa bada, hizkuntzena are handiagoa dela salatu dute. Munduan diren 7.000 hizkuntzetatik ia % 50 dago arriskuan; anfibioetatik, berriz, % 40; ugaztunetatik % 25, eta hegaztietatik % 14. Larrialdiaz jabetuta, UNESCOk Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkada izendatu du 2022an hasitako hau.




ARG.: Wikimedia.

Neurri eraginkorrak hartu ezean, mende bukaerarako 1.500 hizkuntza galdutzat jotzen dituzte zientzialariek. Aurreikuspen pesimistenek, hizkuntzen % 90. Hizkuntza-dibertsitatearen galera kolonizazioarekin eta globalizazioarekin lotuta dago batez ere, baina egungo beste hainbat faktorek nola eragiten

duen jakin nahi izan dute. Hala, hizkuntza-politikek, biztanleriaren ezaugarriek, gizarte- eta ekonomia-aldaketek, ingurumen-baldintzek eta hizkuntzaren dokumentazio-mailak nola eragiten duten aztertu dute Australiako hainbat ikerketa-zentrotako eta Alemaniako Max Planck institutuko zientzialariek.

Nature Ecology & Evolution aldizkaritik moldatua.



Konektibitatea

Historikoki, Australiak, Hego Ameriak eta AEBk izan dute hizkuntza-galerarik handiena, baina gaur egun beste eremu hauetan daude hizkuntza gehien desagertzeko arriskuan: Ginea Berria, Erdialdeko Amerikan, Himalaian eta Afrikako erdialde-mendebaldean.

“Ezinbestekoa da hizkuntza-politika sendoak izatea eta hizkuntzen dokumentazio linguistikoan inbertitzea”

Arrazoiak aztertu dituztenean, ikusi dute ezen, uste orokorraren aurka, beste hizkuntzekin kontaktu estua izatea ez dela hizkuntza bat arriskuan jartzen duen faktorea, betiere hizkuntza-politika sendo bat baldin badago atzean. Bestela, arrisku potentzial bihurtzen da. Gauza bera gertatzen da errepidesareekin eta hezkuntza-mailarekin ere: zenbat eta handiagoa izan errepide-dentsitatea, orduan eta arrisku handiagoa du hizkuntzak, populazioaren mugimendu handia dela eta; orobat, zenbat eta maila altuagoa izan hezkuntza formalak, are handiagoa da jatorrizko hizkuntzaren galera. Baina, ikertzaileen arabera, galera horrek ez du zerikusizuzenik errepideekin eta hezkuntza-mailarekin, hizkuntza-politika okerrekin baizik.

Esaterako, AEBn Hezkuntza Elebidunaren Legea diseinatu zen, komunitate indigenetako biztanleek hezkuntza orokorrerako eskubidea izan zezaten. Baina helburu bakarraz ematen zieten ama-hizkuntza erabiltzeko erraztasuna: ingeleserako zubi-lana egiteko, ez ama-hizkuntzan ikasteko. Beraz, hezkuntza-politikek ez dute hizkuntzen dibertsitatea babesten, ez badute ama hizkuntzan ikasteko eskubidea bermatzen eta sustatzen.

Oro har, ikertzaileek ikusi dute hau dela hizkuntzen arteko konektibitatea ulertzeko gakoa: bereiztea ea hitzunik berea ez den beste hizkuntza batera aldatzen duten ala beste hizkuntza bat txertatzen duten beren gaitasun linguistikoetan, beti ere haien hizkuntza zainduta.

Klima-larrialdia

Arrisku globalez gain, tokikoagoak diren arriskuak ere identifikatu dituzte: Afrikan, esaterako, lurra-erabilerarekin eta biziraupenarekin zerikusia du arriskuak neurri handi batean, gizarte eहितaribiltzaileek inguruko talde nekazarien hizkuntza handiagoa bereganatzean jartzen baita arriskuan jatorrizko hizkuntza; Europan klimarekin du zerikusia, eta eremu artikoetako hizkuntzaren galeran islatzen da hori, Asian bezalaxe; eta, Ozeanian, berriz, populazio-dentsitatea murrizteak sortzen du arriskurik handiena. Faktore globaletatik harago, lekuan lekuko faktoreak ikertzeko lan handia da-goela aitortu dute zientzialariek, baina ohartarazi dute horietako asko klima-larrialdiak sortutako arazoak izan daitezkeela.

Hizkuntzaren dokumentazioa eta gramatika landua

Eragin handia duen beste aldagai bat ere identifikatu dute: hizkuntzak indartzeko ezinbestekoak dira testu idatziak, hiztegiak eta gramatikak. Hain zuzen ere, lehendabizi desagertuko diren hizkuntzek ez dute apenas dokumentaziorik eta gramatika idatzirik. Dokumentazio-lan hori egitera deitu dute ikertzaileek, berandu baino lehen, ikerketa eta ezagutza baitira hizkuntzak zaintzeko gakoak.

Max Planck institutuko ikertzaileen arabera, giza eboluzio kulturean ohikoa da etengabeko aldaketa, baina hizkuntza-dibertsitatearen egungo galera masibo eta larri hau kolonizazioak eta zain-

du gabeko globalizazioak eragin dute. Orain, hiru hiletik behin hizkuntza bat galtzen da munduan, eta kalkulatu dute, gaur egungo egoerari eutsiz gero, hemendik 40 urtera hilero galduko dela hizkuntza bat. Beraz, beharrezkoa ikusten dute premiazko inbertsio globala egitea dokumentazio linguistikoa eta hezkuntza osoa ama-hizkuntzan ikasteko hezkuntza-programa eraginkorretan.

Bestetik, hizkuntzen galera klima-larrialdiaren barruan ere ulertzea deitu dute zientzialariek. Are gehiago, iradoki dute klima-aldaketaren ereduak berek lagundu dezaketela hizkuntza-dibertsitatearen galera aurreikusten. ●



Australiako eta Alemaniako ikertzaileek egungo baldintzatzaileak aztertu dituzte, ez baldintzatzaile historikoak, baina kontziente dira iragan hurbilean eragin handia izan dutela. Besteak beste, populazio indigenen sarraskiek, ama-hizkuntza hitz egiteagatik zigortu izanak eta haurrak haien gurasoengandik bereizi izanak. ARG.: Pixabay.